

JUAN CARLOS ALONSO, Psikologoa

“Gaztetxoak liburuetatik urruntzen ari gara, politikoki zuzenak ez direnak debekatuz”

Edu Lartanguren

Juan Carlos Alonso (Errenteria, Gipuzkoa, 1959) psikologoa da. Donostiako Peñaforida institutuan ikasleekin zein guraso eta irakasleren prestakuntzan aritzen da. Horrez gain, urte asko daramatza heziketaren inguruko hitzaldiak ematen. *Zer eragin du irakurzaletasunak haurraren bilakaeran?* izenburuko hitzaldia emango du gaur, 18:30ean, Berako Herri Liburutegian (Nafarroa).

Esaten ohi da haurrentzako hobea dela irakurtzea bideo jokoetan aritzea edo telebista ikustea baino. Topiko bat da? Zertan da hobea?

Nik ez dut esaten hobea edo txarragoa denik, baina psikologikoki edo intelektualki sormen handiagoa eskatzen dio haurrari irakurtzeak. Liburuak edo ipuinak irakurtzen dituen haurraren jarduera mentala aktiboa da. Pantaila batean ikusten dena emana dago, eta ez dio haurrari horrenbeste sormenik eskatzen: umeak jaso besterik ez du egiten. Irakurriz, berriz, haurrak irudimena garatzen du; bere baitara begira jartzen da, eta bere barrua ezagutzeko aukera du. Gainera, nahi duenean gelditu daiteke; bideo jokoan nolabait ere bahituta dago.

Irakurtzeak haurra bere baitara begira jartzen badu, ez al dago arriskurik haur bakartiak sortzeko?

Ez dut arrisku hori ikusten. Egungo haurrak -eta helduok- oso gutxitan begiratzen diogu gure barruari. Beti kanporantz begira gaude, eta ez dugu astirik izaten gure sentiberatasuna ukitzeko. Nire ustez, haurrek behar dituzte tarte lasaiak, isiltasuna entzun. Irakurzaletasunak hori eman diezaike, bizitzaren eromenetik pixka bat urruntzeko aukera.

Haurrek gero eta gutxiago irakurtzen dutela esaten dute. Hori egia dela ikusi duzu zure lanean?

Sei-zazpi urte arte, haurrek badute izan irakurzaletasuna. Zazpi urtetik aurrera, gutxi gorabehera, gutxitu egiten da zaletasuna. Izan ere, pantailak askoz erakargarriagoak egiten zaizkie. Lan gutxiago eskatzen die. Horrez gain, eskolaren bidez, irakurtzea betebeharrarekin eta etxeko lanekin lotzen du haurrak. Hor uzten dio haurrak irakurtzeari.

Pantaila eta papera kontrajartzen dituzu... Esaterako, Interneten irakurtzen denak ez al du balio?

Gauza bat da informazioa lortzeko irakurtzea, eta beste bat irakurzaletasuna. Noski, XXI. mendean irakurtzeko beste modu batzuetan hezi beharko ditugu haurrak eta helduak. Interneten askotan dago irudia testua laguntzen. Liburuak aukera ematen du irudimenarekin bidaiatzeko. Irakurzaletasunak eragin ona du haurraren psikologikoki, intelektualki, sozialki eta afektiboki. Horrez gain, laguntzen dio hizkuntza mailan, pertzepzioan, estetikan eta moralean, hau da, balioen heziketan. Baina nik guraso eta irakasleei beti esaten diet irakurzaletasunak haurrari ematen dion onurarik garrantzitsuena gozamina da, plazera, poza, tarte erakargarriak, bitxiak eta politikak.

Zertan ari gara huts egiten 7 urtetik gorakoekin?

Guk erabakitzen duguna irakurtzera behartzen ditugu, haien jakin-minari erantzun beharrean. Politikoki zuzenak ez diren gaiak debekatu egiten dizkiegu. Irakurketak transgresio puntu bat ere izan behar du. Zentsura kendu egin beharko genuke. Literatura errealitatea urratzeko modu bat ere bada.